IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GAZTERIA
Tel. 943 004330
gazteria@pasaia.net

"UDALEKUAK 2024"RAKO BEGIRALEEN IZEN-EMATEA

Pasaiako Udalaren Haur, Nerabe eta Gazteen Sailak uztailerako antolatu dituen **"Udaleku Irekiak"** egitarauan begirale izan nahi duenari **izena emateko epea apirilaren 15ean hasi eta 26an amaitzen dela** jakinarazten dio.

Hautaketa-prozesu honen ondorioz sortuko den zerrenda beste egitarau edo behar batzuetarako erabili ahal izango da.

Udalekuak **2024ko izen-ematea** aurreko urteetan jarritako sistemaren bitartez egingo da: http://www.hezten.eus/zerbitzu-orrialdeak/pasaiako-udaleku-irekia-2024/ estekaren bidez egin beharko da. Esteka apirilaren 15ean aktibatuko da. Horretarako bi pausu jarraitu behar dira:

1.- Aipatutako estekan sartuta, erabiltzaile berri bat sortu eta lan-poltsan eskatzen diren atalak bete (erabiltzailea eta pasahitza gogoan izan beharko dira geroago moldaketak egin nahi badira)

2.- Lan-poltsa horretako lan-eskaintzetan Pasaiako Udaleku Irekietan lan egiteko hautua egin.

* Norbaitek aurrez Hezteneko lan poltsan izena-emana badu, berritu nahi dituen atalak osatu besterik ez du (aurrez jarriak daudenak egokiak direla konfirmatzearekin batera).

Informazio gehiagorako http://www.hezten.eus/zerbitzu-orrialdeak/pasaiako-udaleku-irekia-2024/ bisitatu.

Udalekuetan onartua izateko eta hautaketa prozesuan **parte hartzeko baldintzak** hauek dira:
- 18 urte izatea.
- Euskara jakitea (dagokion lan poltsako atalean C1 edo baliokidea aurkeztuz. Hala egiten ez duenak, hautaketa prozesuko talde elkarrizketa bidez frogatu beharko du).

Udalekuetan lan egiteko hezitzaileen hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: alde batetik, talde elkarrizketa eta, bestetik, curriculumaren baremazioa. Bigarren fase horretara igarotzeko derrigorrezkoa izango da talde elkarrizketa gainditzea.

*Lehenago Pasaiako Udaleku Irekietan aurkeztutakoek aurreko urteko emaitza mantentzea nahi badute, aurten ez dute talde elkarrizketarik egin beharko eta aurreko urteko emaitza hartuko da kontuan hautaketa prozesurako.

Behin bi fase horiek bukatuta, bi ataletan lortutako puntuazioen batura egingo da: parte bakoitzak % 50eko balioa izango du. Lortutako emaitza horretatik hezitzaileen zerrenda aterako da, dagokion hurrenkeran. Haur kopuruaren arabera udalekuetan beharko den hezitzaile kopurua zehaztuko da.

Formazioaren balorazioa:

- Aisialdiko begirale agiria EHn: 5 puntu
- Aisialdiko begirale agiria EHtik kanpo :1,5 puntu
- Aisialdiko zuzendari agiria EHn: 5 puntu

- Aisialdiko zuzendari agiria EHtik kanpo: 1,5 puntu
- Heziketarekin harremana duten Unibertsitate ikasketak amaiturik izatea (Haur Hezkuntza,
- Lehen Hezkuntza , Gizarte Hezkuntza, Gizarte langintza, Pedagogia graduak): 2 puntu
- Heziketarekin harremana duten Lanbide Heziketako ikasketak amaiturik izatea
- (Gizarte eta kirol animazioa, Haur Hezkuntza, Gizarteratzea eta Animazio Soziokulturala eta turistikoa zikloak): 2 puntu

Lan-esperientziaren balorazioa:

Udaleku esperientzia edo txanda bakoitza adierazi:

- Udaleku itxiak-ibiltariak: 0,5 puntu bakoitzak
  * 6 egun baino gutxiagoko esperientziak ez dira onartuko
- Udaleku irekiak: 0,5 puntu bakoitzak
  * 6 egun baino gutxiagoko esperientziak ez dira onartuko
- Aisialdiko talderen bateko partaide izatea: puntu 1
- Aisialdiko taldeko partaide edo/eta aisialdiko egitasmoan parte hartzea Pasaian bada: puntu 1
- Ikasturtean zeharreko aisialdi egitasmoak:
  - Ikasturtean gutxienez 300 orduko lanaldia: puntu 1
  - Ikasturtean gutxienez 80 orduko lanaldia: 0,5 puntu

Merituak kontuan hartu ahal izateko, derrigorrez dagozkien ziurtagirien bitartez frogatu behar dira

Elkarrizketa-talde dinamika:

Iraupena: 45 minutu
Formatua: Taldeka
Edukiak: Hainbat dinamika proposatuko dira bi dinamizatzailek gidatuta.

Baloratuko diren aldagaiak:
- Parte-hartzea
- Giza trebetasunak
- Talde-lanerako gaitasuna
- Euskara maila
- Diskurtsoa

Begiraleentzako **hautaketa** Trintxerpeko Udal Euskaltegian izango da (Euskadi etorbidea, 61), **maiatzaren 3an, ostirala, 16:00etan hasita (talde bat baino gehiago egoteko aukera dagoenez, hitzordu ezberdinak emango dira).**

Hautagai asko baleude, eta antolakuntza arrazoiengatik beharrezkoa balitz, 11n (larunbat goizean) jarraipena izango luke.

Hautatuek oinarrizko **prestakuntza-ikastaro batean** hartu beharko dute parte Udalekuetarako beharrezkoak izango dituzten programazio ereduez, metodo pedagogikoez, eta abarrez, programazioa presta dezaten. **Nahitaezkoa** izango da ikastaroan parte hartzea Udalekuetan lan egiteko. Ikastaroa Pasaiako **Karmengo Ama ikastetxean ekainaren 7an eta 8an** egingo da. Ostiralean 15:30etik 20:30era eta larunbatean 9:00etatik 14:00etara.

Interesatuta baldin bazaude, estekara jo ezazu apirilaren 15etik 26a bitarte: http://www.hezten.eus/zerbitzu-orrialdeak/pasaiako-udaleku-irekia-2024/ estekaren bitartez.
Informazioa: HEZTEN: 943-270033 - lanpoltsa@hezten.eus – www.hezten.eus

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SAILA